



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko irailaren 18a

91. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu-liburua Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea aldatzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretuko 1. artikulua alda dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txosteneko ondorioak eta gomendioak ezar ditzan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Errehabilitazio Zerbitzuarentzako kokaleku egokiagoa jaso dezan Reina Sofia Ospitaleko Plan Zuzendarian. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Nafarroako DYArekin, gobernuz kanpoko erakundearen lokalen etorkizuneko kokalekua ezartze aldera. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak egin eta susta ditzan Ega ibarrean gas naturala banatzen duten enprekin. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, Malaysian giza eskubideak urratzeari buruz Amnesty Internationalek egindako salaketari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, jakiteko ea egia ote den Nafarroan abortuari buruzko legea urratzen dela, nahiz eta kontzientzia-eragozpena arautu, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (11. or.).

- Galdera, Kalitatezko Osasun Zerbitzuen Zorroari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (11. or.).
- Galdera, Emakumea eta Kirola izeneko kanpainari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (12. or.).
- Galdera, uztailaren 1eko 258/2009 Foru Aginduari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko Osasun Departamentuak noiz aldatuko duen 70/2003 Dekretua, Ana Figueras Castellano andreak egina (13. or.).
- Galdera, Aiegiko Udalak jasotako laguntzei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren web-orrialdean Laguntza Soziosanitarioari buruzko Foru Plana argitaratuta egoteari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (15. or.).
- Galdera, hegaztien gripea dela-eta hartutako neurriei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (15. or.).
- Galdera, langile autonomoen eta soldatako langileen zerga-ordainketari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, 2008ko ekitaldian sortutako errentei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, kapital aldakorreko inbertsio sozietatei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).

**I SAILA:****Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2009ko egoerari buruzko eztabaida egiteko (18. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu-liburua Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea aldatzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak oinarrizko irakaskuntzarako testu-liburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**1.** Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu-liburua Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Foru Lege proposamena, Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu-liburua Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea aldatzekoa**

### ZIOEN AZALPENA

“Oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa da”, eta, hortaz, ikasteko beharrezkoak diren materialek (testu liburuak eta material osagarriak) ez diete inolako kostu ekonomikorik ekarri behar ikasleari eta, horrenbestez, haien familiei.

3/2006 Lege Organikoko 88.2 artikulua ezarritzen du hezkuntza-administrazioek behar diren

baliabideak emanen dizkietela ikastetxeei oinarrizko irakaskuntzaren doakotasuna bideratzeko.

Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu-liburua Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea onetsi zenetik egiaztatu ahal izan da 30 eurotik 90 euro bitarte gastatu behar izan direla kasurik gehienetan material hori erosteko, legean ez baita jasotzen material didaktiko osagarriaren doakotasuna.

Nafarroa Baik, aipatu lege organikoaren espirituari eta letrari jarraikiz, agerian jarri du beharrezkoa den material didaktikoa erostea zama ekonomikoa dela familientzat eta legean ezarritakoarekin kontraesanean dagoela; izan ere, bertan esaten da “oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa” dela.

Krisi garai honetan, gure proposamenak ez du kostu gehigarriarik ekarriko; izan ere, Testuliburuaren doakotasun-programa izeneko kontusailak, 400.000 dituenak, balioko luke hura gauzatzeko.

Lege proposamenaren testua:

Martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen 1, 2, 3 eta 4. artikulua aldatzen dira. Hona hemen testua:

**1. artikulua.** Testuliburuak eta material didaktiko osagarria.

2. Material didaktikoa da ikasleek, banaka eta ikasturteak irauten duen bitartean, erabiltzeko prestaturiko curriculum materiala; material hori, kasuan kasuko orientabide metodologikoen eta ebaluazio irizpideen arabera, baliagarria da curriculum edukiak garatzen laguntzeko.

**2. artikulua.** Doakotasuna.

1. Diru publikoekin ordaindutako ikastetxeetako testu liburuak eta material didaktiko osagarria, alegia, ikastetxe bakoitzak oinarrizko hezkuntzan irakasteko legez aukeratu dituen haiek, dohainik izanen dira aipatu irakaskuntzan ari diren ikasle guztientzat.

2. Erregelamenduz zehaztuko dira aipatu ikas-tetxeek eta gurasoek edo tutoreek foru lege honen xedea diren testu liburuak eta material didaktiko osagarria jasotzeko jarraitu beharreko prozedurak.

**3. artikulua.** Finantzaketa.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean bilduko ditu testu liburuak eta material didaktiko osagarria

finantzatzeko behar diren kontusailak, Erregelamenduz zehaztuko diren formulen arabera.

**4. artikulua.** Programaren ezaugarriak.

4. Lege honetako 1.2 artikuluan aipatzen diren material didaktikoen erabilera- eta itzultze-aldia urtebetekoa izanen da.

**Azken xedapena.** Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita egunera.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretuko 1. artikulua alda dezan.**

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretuko 1. artikulua alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Maiorga Ramirez Errok eta Patxi Zabaleta Zabaletak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko ele-dunek, 2009ko apirilaren 23an eginiko Osoko Bilkuran eztabaidaturiko jabelduraren ondorioz, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

2008ko apirilaren 23an, Osasun Batzordeak ondokoa zioen mozioa onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aho-hortzetako osasun-programa bat sor dezan, adimen nahaste larriaren edo/eta ezgaitasun psikikoaren ondorioz gaixotasunen bat duten pertsonak artatze aldera, baldin eta, Nafarroako Gobernuak Gizarte Gaietako Departamentuak emandako ziurtagiriaren arabera, %65eko edo hortik goitiko minusbalioetasuna badute.”

Ikusirik 2009ko amaieran oraindik ez dela mozio hori bete, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du apirilaren 7ko 70/2003 Foru Dekretuko 1. artikulua alda dezan –Xedea eta aplikazio esparrua–. Hona hemen lehenengo idatz-zatiaren testua:

“a) Nafarroako Gobernuak Gizarte Gaietako Departamentuak emandako ziurtagiriaren arabera, % 65eko edo hortik goitiko minusbalioetasuna izatea.”

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hurrengo aurrekontuetan kontusail bat sar dezan aldaketa hori gauzatzeko aldera.

Iruñean, 2009ko irailaren 3an.

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez eta Patxi Zabaleta

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txosteneko ondorioak eta gomendioak ezar ditzan.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txosteneko ondorioak eta gomendioak ezar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2009ko abuztuan, Nafarroako Parlamentuan sartu zen Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko fiskalizazio txostena. Txosten hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak eskatu zuen, ulertzen baitzuen Comptos Ganberak aztertu behar zuela erabiltzai-

le talde jakin batzuei osasun zerbitzuak publikitate gabeko prozedura negoziatuaren bitartez kontratatzea.

Comptos Ganberak bere txostenean jasotzen dituen ondorio eta gomendioetatik, parlamentutalde honentzat esanguratsuak dira aipatzen dutenak komenigarria izanzen litzatekeela kontratua interes publikorako beharrezkoa edo komenigarria izateari buruzko justifikazioa indartzea eta modu egokiagoan justifikatzea norberaren baliabide publikoen bidez zerbitzua emateko ezintasuna.

Ezker Batuan badakigu Gobernuak interesa duela osasunaren arloko zenbait zerbitzuren privatizazioa bultzatzeko eta laguntza ekonomiko ordainezina emateko, hain zuzen, Klinika Unibertsitarioari. Hori dela eta, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ondorio gabe utz dezan Nafarroako Unibertsitateak eta Nafarroako Gobernuak sinatutako hitzarmena, zeinaren bidez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuk Nafarroako Unibertsitateko osasun zerbitzuetan artatuak baitira.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du osasunaren arloko sektore pribatuarekin edozein hitzarmen egin edo berri baina lehen justifika dezan interes publikorako beharrezkoa edo komenigarria ote den.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du modu egokiagoan justifika dezan norberaren baliabide publikoen bidez zerbitzua emateko ezintasuna, eta ezintasun hori tekniki azter dezan, bai eta zerbitzua norberaren baliabideen bidez emateak ekarriko lukeen kostua ere.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Errehabilitazio Zerbitzuarentzako kokaleku egokiagoa jaso dezan Reina Sofía Ospitaleko Plan Zuzendarian.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Errehabilitazio Zerbitzuarentzako kokaleku egokiagoa jaso dezan Reina Sofía Ospitaleko Plan Zuzendarian.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Errehabilitazio Zerbitzuarentzako kokaleku egokiagoa jaso dezan Reina Sofía Ospitaleko Plan Zuzendarian. Zioen azalpena

Reina Sofía Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzua 1989ko urtarrilaren 9an inauguratu zen; beraz, duela 20 urte baino gehiago. Garai hartan, zerbitzuak 45 gaixo inguru eta hiru fisioterapeuta zituen.

Zerbitzu hori handitu egin da, bai gaixo kopuruari dagokionez –gaur egun, 150 inguru ditu–, bai bertan lan egiten duten langileei dagokienez; izan ere, gaur egun zazpi fisioterapeuta, lau laguntzaile eta bi mediku ari dira bertan, praktiketako ikasle eta aldi baterako errefortzuez gain.

Instalazioak, hau da, gaixoak artatzen dituzten espazio fisikoa, duela 20 urteko bera da eta erabat eskasa da, bai bulegoak, bai itxarongela eta gimnasioak berak.

Zerbitzua ospitaleko erdisotoan dago, eta horrek arazoak sortzen ditu argiteriari, aireztapenari, hezetasunari eta tenperaturei dagokienez.

Gabezia horiek ospitaleko zuzendaritzari aurkeztu zaion txosten batean jaso dira eta, halaber, ospitaleko Lan Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuak beste txosten bat egin du, eta bertan hainbat gabezia jaso ditu.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Errehabilitazio Zerbitzuarentzako kokaleku egokiagoa jaso dezan Reina Sofía Ospitaleko Plan Zuzendarian.

2. Legegintzaldi honetan zehaztu dezan kokaleku berri hori.

Iruñean, 2009ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Nafarroako DYArekin, gobernuz kanpoko erakundearen lokalen etorkizuneko kokalekua ezartze aldera.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hitzarmen bat sina dezan Nafarroako DYArekin, gobernuz kanpoko erakundearen lokalen etorkizuneko kokalekua ezartze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita hitzarmen bat sina dezan Nafarroako DYArekin, gobernuz kanpoko erakundearen lokalen etorkizuneko kokalekua ezartze aldera.

#### **Zioen azalpena**

Agerikoa da gaur egun ezin daitekeela zalan-tzan jarri irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakunde askoren lanari esker Nafarroako gizartea indartu egin dela. Milaka boluntarioen lan eskuzabalak ahalbidetzen du Foru Komunitateko administrazioek erantzun ia berehalakoak izatea zenbait egoeren aurrean; izan ere, horiek lana izan ezean, erantzunik ezin izanen litzateke eman, edo, emanda ere, gaur egungo kostua baino handiagoa izanen luke.

Horren ordain gisa, beharrezkoa da, zehazki DYA Nafarroaren kasuan, Foru Administrazioak

erraztea elkarre horrek egiten duen lana eta haren eskura baliabide ekonomikoak nahiz azpiegituren arlokoak jartzea, bere lana egiten jarrai dezan.

Horrenbestez, eta ikusirik Foru Gobernuak gaur egun DYA Nafarroarekin duen hitzarmena, elkarre horrek bere lanaren epizentro gisa erabiltzen dituen lokalei buruzkoa, hemendik gutxira amaituko dela, uste dugu beharrezkoa dela, presarik gabe baina etenik gabe, gaur egungo Iruñeko arrain-lonja zeneko kokalekuaren ordezkoko bat bilatzea, erakundeak berak lekualdaketa prestatu ahal dezan bere lanean beharrezkoa dena baino eragin handiagorik izan gabe, eta, aldi berean, DYA Nafarroaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmenen gaurkotze ekonomikoa egitea, gobernuz kanpoko erakunde honen defizit etengabea ekidite aldera.

Hori dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bidezkoa den hitzarmena sina dezan DYA Nafarroarekin, behar den denborarekin zehazteko Iruñean egoitza gisa erabiltzen duten lokalaren ordezkoa, bai eta beharrezkoak diren baldintzak ere, gobernuz kanpoko erakunde horrek jarraitu ahal izan dezan orain arte egiten duen lana egiten berme osoa izanda beharrezkoak dituen oinarrizko azpiegiturei dagokienez, eta beharrezkoa duen deborarekin prestatu ahal izan dezan lekualdatzea, bere lanean eraginik izan gabe.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gaur egun DYArekin sinatuta dituen hitzarmenak eta etorkizunekoak berrikus ditzan, ahal den heinean ekidite aldera irabazi asmorik gabeko erakunde honek Nafarroako gizartearentzat egiten duen lanaren ondorioz duen defizit historikoa.

Iruñean, 2009ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak egin eta susta ditzan Ega ibarrean gas naturala banatzen duten enpresekin.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hitzarmenak egin eta susta ditzan Ega ibarrean gas naturala banatzen duten enpresekin

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmenak egin eta susta ditzan Ega ibarrean gas naturala banatzen duten enpresekin, etxeei eta enpresei zerbitzu hobea emate aldera.

Zioen azalpena

Agerikoa denez, Foru Komunitatea osatzen duten eskualdeen garapen harmoniko eta orekatua lortzeko oinarritzko gakoetako bat da edozein motatako energiaren hornikuntza egokia.

Hori argi izanda, Nafarroako Gobernuari dagokio energiaren hornikuntza egokiena lortzeko behar diren mekanismoak ezartzea, nazio mailan arlo horretako eskumena duten enpresekin adostasunean, Nafarroako Foru Komunitateko familien eta enpresen beharrezkoak asetzeko modurik onena lortzeko xedearekin, edozein dela ere haien kokalekua.

Egia bada ere energia azpiegiturei buruzko azterketa era orokorrean egin behar dela, egokia da, baita ere, unean uneko azterlanak egitea, arreta berezia eskaintze aldera Nafarroako eskualde jakin batzuetan dituzten arazoei, hala nola Lizarraldeko Ega ibarrean.

Hornidura elektrikoari buruzko zenbait ekimen baliagarriak izanen dira eskualdeko –egia esateko, Lizarralde osoa– energia gabeziak arintzeko; hala ere, gas naturalaren hornikuntza ez da bete Antzin, Murieta eta inguruko herrietan, eta hango enpresa batzuek, hala nola Schmidt-Clemens, gas kontsumo izugarria dute eta behar-beharrezkoak dituzte azpiegitura egokiak, beren lana aukera gehiagorekin eta kostu txikiagoekin egin ahal izateko. Bestalde, eskualde horretako familiek ere bizi kalitate hobea izanen dute gas hornikuntza modernoak ezartzen badira ohikoen ordez.

Gure ustez, bada eskaera nahikoa eskualdeko udal, enpresa eta etxeen aldetik, eta, horrenbestez, uste dugu beharrezkoa dela Nafarroako Gobernua premiatzea ahaleginak egin ditzan helburu hori lortze aldera. Ahalegin horien artean, hitzarmenak sinatu behar dira enpresa hornitzaileekin, gaur egun dauden oztopoak kendu eta jardura ekonomikoa bultzatzeko, bai eta bertan bizi diren herritarren ongizate-maila handitzeko.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen sina ditzan beharrezkoak diren hitzarmenak gas naturala banatzen duten enpresekin, Lizarraldeko Ega ibarrean hornikuntza egokia izan dezaten, bai enpresek bai familiek, lehiakortasun industrial handiagoa lortzeko, enpresen kostuak murrizteko eta eskualde horretako biztanleen bizi kalitatea areagotzeko.

Iruñean, 2009ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Adierazpen instituzionala, Malaysian giza eskubideak urratzeari buruz Amnesty Internationalek egindako salaketari buruzkoa.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Amnesty Internationalek egindako salaketarekin eta gaitzetsi egiten ditu Malaysiako Gobernuak aplikatzen dituen gorputzeko zigorrak.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babesari eta sostengua adierazten dizkio Amnesty International erakundeari, arlo horretan eginiko lanarengatik,

egiten dituen salaketa-kanpainari esker bizitzak salbatu ohi direlako mundu osoan.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez salaketa-adierazpen hau igor dezan Malaysiako erakunde eskudunetara eta zuzemenak egin ditzan hango Gobernuak zigorkatzea nahiz gorputzeko bestelako zigorrak ahalbidetzen dituzten legeak indargabetze aldera.”

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria : Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, jakiteko ea egia ote den Nafarroan abortuari buruzko legea urratzen dela, nahiz eta kontzientzia-eragozpena arautu.**

*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea egia ote den Nafarroan abortuari buruzko legea urratzen dela, nahiz eta kontzientzia-eragozpena arautu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi, kontseilari andreak hedabideei esan zien "kontzientzia eragozpena araututa ere, Nafarroan ez da aborturik eginen". Egia al da kontseilari andreak legea ez betetzen jarraitzeko asmoa duela?

Iruñean, 2009ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

---

## **Galdera, Kalitatezko Osasun Zerbitzuen Zorroari buruzkoa.**

*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Kalitatezko Osasun Zerbitzuen Zorroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Arartekoak, Enériz jaunak, Osasun Prestazioen Katalogoari eta Zerbitzuen Zorroari buruz eginitako txostenean Osasun Departamentuari iradokitzen dio "osasun prestazioen eta haien bermeen antolamendu juridiko-tekniko indardunaren berrazterketa sakona susta dezan, Nafarroako Foru Komunitateak kalitatezko osasun zerbitzuen zorro bat izan dezan". 2009ko ekainaren 11ko Osoko Bil-

kuran, berriz, aho batez onetsi zen mozio bat, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen osasun prestazioen katalogoa gaurkotu eta berritu zezan.

Zer urrats egin dira gaur arte eta zertan da Zerbitzuen Zorroa?

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

---

## **Galdera, Emakumea eta Kirola izeneko kanpainari buruzkoa.**

*NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Emakumea eta Kirola izeneko kanpainari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilari García Malo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez da eraman "Emakumea eta Kirola" izeneko kanpaina Nafarroako ipar-ekialdeko eta ipar-mendebaldeko herrietara?

Iruñean, 2009ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

## **Galdera, uztailaren 1eko 258/2009 Foru Aginduari buruzkoa.**

*NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, uztailaren 1eko 258/2009 Foru Aginduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilari García Malo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontseilari horrek uztailaren 1ean emandako 258/2009 Foru Aginduko dirulaguntzen aurtengo deialdian mugatu egin dira gizarte boluntarioek esku hartzeko arloak. Zergatik?

Iruñean, 2009ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

## **Galdera, jakiteko Osasun Departamentuak noiz aldatuko duen 70/2003 Dekretua.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Osasun Departamentuak noiz aldatuko duen 70/2003 Dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko gal-

dera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak Nafarroako Ezker Batuak aurkezturiko mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez eskatzen baitzen "Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Hortzetako Programa" alda zedin, hortzetako programa hori ezgaitasunak dituzten pertsonengana helarazteko.

Mozio hori onesteak ekarriko du foru dekretu bat aldatzea, eginiko eskakizunari erantzuteko eta programa horren estaldura ezgaitasunen bat duten pertsona gehiagorengana zabaltzeko. Orain arte, ez dugu argi gai hori dekreturen baten bidez konpondu ote den; hori dela eta, ondoko galderari erantzutea nahi dugu:

Osasun Departamentuak noiz aldatuko du gaur egun indarrean dagoen 70/2003 Foru Dekretua?

Iruñean, 2009ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Aiegiko Udalak jasotako laguntzei buruzkoa.**

### *IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Aiegiko Udalak jasotako laguntzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galdera, Aiegiko Udalak jasotako laguntzei buruzkoa.

1. Zer laguntza jaso ditu Aiegiko Udalak Gizarte Gaietako Departamentutik eta zer kontzepturen-gatik?

Iruñean, 2009ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, Osasun Departamentuaren web-orrialdean Laguntza Soziosanitarioari buruzko Foru Plana argitaratuta egoteari buruzkoa.**

*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuaren web-orrialdean Laguntza Soziosanitarioari buruzko Foru Plana argitaratuta egoteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran idatziz erantzun dezan:

Laguntza Soziosanitarioari buruzko Foru Plana ez dago indarrean, eta ez da ez onetsi ez bete. Orduan, zergatik ageri da Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuaren webgunean?

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

## **Galdera, hegaztien gripea dela-eta hartutako neurriei buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, hegaztien gripea dela-eta hartutako neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak hegaztien gripe kasuen agerpena dela-eta sortu diren arazoak konpontzeko?

Iruñean, 2009ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, langile autonomoen eta soldatako langileen zerga-ordainketari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, langile autonomoen eta soldatako langileen zerga-ordainketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Zein da gure erkidegoko profesionalen eta autonomoen sektoreak ordaintzen dituen zergen batez bestekoa?

– Zein da besteren konturako langileek ordaintzen dituztenen batez bestekoa?

Iruñean, 2009ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, 2008ko ekitaldian sortutako errentei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 2008ko ekitaldian sortutako errentei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008an sorturiko errentak direla eta, parlamentari honek hau jakin nahi du:

– Zer kopuru eta ehuneko dagozkie laneko errentei?

– Zer kopuru eta ehuneko dagozkie kapitaleko errentei?

– Zer kopuru bildu zen laneko errentei buruzko zergen bidez?

– Zer kopuru bildu zen kapitaleko errentei buruzko zergen bidez?

Iruñean, 2009ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro



## **Galdera, kapital aldakorreko inbertsio sozietateei buruzkoa.**

### **MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, kapital aldakorreko inbertsio sozietateei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Zenbat kapital aldakorreko inbertsio-sozietatek dute helbide fiskala Nafarroan?

– Zein da sozietate horiek eginiko kotizazioen zenbatekoa?

Iruñean, 2009ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

**I saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

## **Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2009ko egoerari buruzko eztabaida egiteko.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egin dadin eskatzen duena, Osoko Bilkurak eztabaida dezan, Legebiltzarreko Erregelamenduko 200. artikuluan xedatuarekin bat etorritz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2009ko egoerari buruzko eztabaida egiteko**

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 200.1 artikulua araber, legegintza-urtearen lehendabiziko bilkuraldiaren hasieran, Gobernu lehendakariaren inbestidura eztabaida egiten denean edo bilkuraldi horretan hauteskundeak egin behar direnean izan ezik, Osoko Bilkura berezia eginen da Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida bat egiteko.

Horrenbestez, eta arau hori betez, Nafarroako Gobernuak 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran erabaki zuen Nafarroako Parlamentuari eskatzea Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida egin dezan.

Agerikoa denez, Nafarroa, Espainia osoa eta, oro har, herrialde garatu guztiak bezala, krisi ekonomiko batean murgilduta dago eta oraindik ez dira ikusten krisi horren konponbidea eta amaiera. Egoera horretan, Nafarroako Gobernuak zenbait neurri jarri ditu abian, enpresen jarduera manten-

tzeko eta bultzatzeko, alde batetik, eta krisiak batez ere lanik gabeko pertsonengan eta sektore behartsuenetan dituen eragin handiagoaren ondorioak arintzeko, bestetik. Baina egoera kezagarria da oraindik, eta Nafarroaren egoera Espainiako gainerako erkidegoen aldean hobea edo ez hain txarra izatea ez da aringarria gertatzen.

Hori ikusirik, Nafarroako Gobernuak jarraitu du itun sozialen politika egiten, iaz Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin eta ordezkari-tza handiena duten sindikatuekin (UGT eta CCOO) sinatu zuen Nafarroako Garapen Iraunkorreko Akordio Sozialari jarraikiz, eta zenbait jardura eta neurri jarri ditu abian, Nafarroako alderdi sozialistarekin adostuta eta haren laguntzaz. Hori-arte, nabarmentzekoak dira oinarritzko azpiegiturak eraikitzeko eta abian jartzeko lanak, esaterako, Nafarroa 2012 Planaren aurreikusitakoak, jada eraikitzen ari direnak, eta beste batzuk, garrantzia handiagokoak, Estatuko Administrazioarekin koordinatuta eta aldeztu aurretik adostuta, hala nola Itoitz-Nafarroako Ubideko urtegiaren garapena eta abiadura handiko trenaren berehalak egiten baita.

Halaber, Nafarroako Gobernuak, egoera sozio-politiko berria kontuan hartuta eta ikusirik aurreko esperientziak alderdi politikoen artean gai horri buruzko hitzarmenak egiteari dagokienez eta hitzarmen horiek gizartearen aldetik duten onespina, ulertzen du beharrezkoa dela Foru Komunitateko alderdi politikoen bizikidetzaren aldeko hitzarmen bat sinatzea, Nafarroako gizarteak aurrera egin dezan askatasun gehiagoren lorpenarekin. Askatasunaren, bizikidetzaren eta demokraziaren aldeko hitzarmen hori, Parlamentuko alderdi guztiei irekia egonen dena, aurrerapauso bat izanen da denok bilatzen dugun xedea lortzeko bidean; hain zuzen, ez bakarrik beren borondatea inposatzeko metodo terroristak baliatzen dituztenen isolamendu politikoa eta soziala, bai eta horiei babesa ematen dietenena ere.

Bestalde, Nafarroako Gobernua, gizarte osoa bezala, kezkatuta dago A gripeak izan dezakeen eraginarekin, bereziki, Nafarroan bizi diren pertsonengan izan ditzakeen ondorioekin. Horrekin lotuta, kontuan hartzen dugu pandemia horrek enpresen jarduera ekonomikoan izan dezakeen eragina, bai eta Administrazioak herritarrei ematen dizkien oinarrizko zerbitzuetan, bereziki osasunaren, larraldien eta hezkuntzaren arloarekin loturikoetan. Hori dela eta, Gobernuak koordinaziorako eta aurreikuspenarako barne-mekanismoak ezarri ditu eta zenbait jarduera jarri ditu abian, nazioko osasunaren arloko agintariekin lankidetzan, herritarren arreta medikoa aurreikusteko eta herritarrei informazioa emateko Osasunaren Mundu Erakundeak eta alor horretako beste agintari batzuk gomendatutako prebentzio-neurriei eta neurri higieniko eta sanitarioei buruz.

Bestalde, Gobernuak eskatutako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidan merezi duen tokia izan behar du oinarrizko arau instituzionalaren erreformak, hau da, den Nafarroako Foru Erarentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren erreformak, zeinaren xedea baita lau

urtera luzatzea legebiltzarra legegintzaldia amaitu baino lehen desegin ondoren hasten den legegintzaldia. Erreforma horren helburua da Nafarroaren egoera ez izatea aurreikuspen hori beren estatutuetan jasota duten beste erkidego batzuen bano okerragoa.

Zalantzarik gabe, gai horiek eta eztabaidan sortuko diren beste batzuek ahalbidetuko dute Nafarroako herritarrek hobeto ezagutzea alderdi politikoek zer iritzi duten beren eguneroko bizitzan eragina duten gaien inguruan. Halaber, aukera izan da proposamen zehatzak egiteko, Nafarroako Gobernuak hobeto bete ditzan bere helburuak eta lehendakari izateko inbestidura eztabaidan hartu nituen konpromisoak.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuan Foru Komunitateari buruzko eztabaida egitera deitzeko erabakia hartu duela jakinarazten dizuet.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Miguel Sanz Sesma: Nafarroako Gobernuko lehendakaria

